

KANALAK

Gure produktuak saltzeko hainbat kanal erabiliko ditugu, komunikazio kanalak dendaren webgunea eta sare sozialak izango dira, hauetan produktuei buruzko informazio gehiago lortzeko aukera izango dute, eta sare sozialen bidez gure produktuak promozionatuko ditugu, hala nola, instagram, facebook, twitter, youtube eta tik tok.

Salmenta kanalak denda fisikoa bai online denda izango dira. Denda fisikoan sal-erosketa metodo tradizionala erabiliko dugu eta gure web orria modernoa baina sinplea izango da, bezeroek erosteko momentua erreztasuna izateko eta problemak ez izateko. Hasiera batean gure lehentasuna online bidezko salmenta izango da, gaur egun bezero gehienei erosoagoa iruditzen zaielako eta errazagoa delako jendea hau ezagutzea sare sozialen bidez.

Online erostekotan banaketa kanala garraio enpresa bat izango da, bezeroei haien eskaerak bidaltzeko eta gure produktuak ahalik eta hoberen iritsiko direla bermatzen diguna. Gure bezeroek online produktuetako bat itzuli nahi badute, banatzaileek etxetik jasotzeko eta bueltatzeko aukera izango dute.

